ANDOAINGO UDALA

BULARREKO MINBIZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Urriaren 19a, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna da eta lehenik eta behin, Andoaingo Udalak bere elkartasuna, aitortza eta babesa adierazi nahi die bularreko minbizia pairatzen ari diren, gaixotasuna gainditu duten edo haren ondorioekin bizi diren emakume guztiei, baita euren zaintza-sareei ere.

Minbizi mota hau emakumeengan intzidentzia gehien duen minbizia da. Datuek diotenez, urtez urte gero eta kasu gehiago izaten dira eta gero eta emakume gazteagoek pairatzen dute gaixotasuna. Norbanako arazo gisa ulertzeari utzi eta osasun publikoaren arazo gisa tratatzea ezinbestekoa da. Era berean, beharrezkoa da emakumeen bizitzetan gaixotasunak duen eragin integralaz hitz egitea. Izan ere, gaixotasunak ondorio fisikoak ez ezik, emozionalak, sozialak, ekonomikoak eta lan-arlokoak ere eragiten ditu. Horrenbestez, emakumeen bizi-proiektuetan, euren harremanetan eta autonomian eragin zuzena izaten du.

Honek guztiak, osasuna genero-ikuspegitik aztertu behar dugula adierazten du, osasuna ez baita auzi biologikoa soilik, faktore sozial, ekonomiko eta kulturalek baldintzatzen duten eskubidea da. Horregatik, ikerketa publiko eta espezifiko gehiago egiten jarraitu behar da, itzulera soziala izango duena. Gainera, kalitatezko arreta integrala ahalbidetzeko ezagutza eta politika publikoak indartzen jarraitu behar dugu. Oinarria badagoen arren, prebentzioa eta detekzio goiztiarra sustatuko duten politika publikoetan aurreratzen jarraitu behar dugu, alegia, emakumeen ongizatea hobetu eta bizitzak salbatzeko.

Gaixotasunak sortzen dituen errealitateak anitzak eta konplexuak dira eta honek ez du bat egiten azken urteotan gaixoek izan beharreko etengabeko baikortasunaren inguruan sortu den irudi idealizatuarekin. Horren harira, bularreko minbiziaren inguruko sentsibilizazio-kanpainekin batera minbizia duten emakumeekin benetako konpromiso iraunkorra izateak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu. Sentsibilizazio-kanpainak beharrezkoak direla uste dugun arren, funtsezkoa da ikusgarritasun horrek aurrerapen zehatzak ere ekartzea. Gaixotasunaren aurkako benetako konpromisoa ikerketan inbertitzean datza, osasun publiko sendoa bermatzean, emakumeen eskubideak defendatzean eta diagnostiko, tratamendu zein zaintza duina eskuratzeko baliabideak bermatzean.

ANDOAINGO UDALA

Egoera honek, osasun-sistemak dituen erronkak erdigunera ekartzea beharrezkoa da, hala nola, itxaron zerrendak murriztea, arreta psikologikoa indartzea, tratamenduek eragindako albo-ondorio fisiko eta emozionalei erantzutea, desberdintasun sozialek osasunean duten eragina gutxitzea eta paziente guztiek arreta integrala jasoko dutela bermatzea. Kalitatezko osasun publiko eta unibertsalak ahalbidetu dezake soilik erronka horiek guztiak modu egokiak erantzutea.

Gaur, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko egunean, azpimarratu nahi dugu osasuna oinarrizko eskubide bat dela, eta emakume guztien osasuna eta bizi-kalitatea erdiesteko, erakundeek konpromisoa lehen lerrora ekarri behar dugu. Osasuna eta ongizatea sustatzeko politikak, osasunaren aferan berdintasuna bultzatzeko ekimenak eta sentsibilizazio eta prebentzio jarduerak justizia erantzuten baitio.

EH Bildu **PSE-EE** **EAJ-PNV** **Elkarrekin-Podemos**